

# *Pattin*

*Zaldubi*

*Mold: Aitor Amezaga*




© 2009 by Aitor Amezaga







*Ez du urte hambatik*
*sor lurretik joanik*
*Pattin ethorri zaiku*
*aberats jadanik.*
*Agur eta ohore*
*nahiz denen ganik.*
*Nor da herrian orai*
*hori bezain jaunik?*

*2.Pattin aberasteaz*
*balin bada jaundu*
*Nola gertatzen zaio*
*ez baita gizondu?*
*Jainkozko sinhestea*
*utzia omen du:*
*Diru hutsak bihotza*
*nekhez dio ondu.*

*3.Pattinen balentria*
*herrira jin eta*
*Gu fededun ikusiz*
*irriz hasi baita:*
*Jainko legea, Pattin,*
*hik ez dirok maita;*
*Hura utzirik bahaiz*
*ibili sosketa...*

*4.Gero Pattini moltsa*
*diote ebatsi!*
*Pattin hire ohoinak*
*milaka goraintzi.*
*Haren egitatea*
*ez dakikek gaizki:*
*Jainkorikan ez zela*
*charman hau sinhetsi.*

*5.Zer egia handia*
*Aitachok ziona:*
*Ez dik ez diru hutsak*
*egiten gizona,*
*Zinezko gizonari*
*hau da dohakona:*
*Jainkoaren beldurra*
*eta bihotz ona.*